


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Maiatzak 5 21. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Gazteek beren eskola eraiki behar izan dute

Lanbide-eskola, ikasteko beste era bat

Langabezia gure gizarteak jasaten duen gaitzetariko bat da. Honi aurre egiteko azpaldi honetan jarraipide ezberdinak har ditzakegu. Hauetako bat gure hezkuntza maila hobetzearena da, bai norberaren inizatibaz, bai instituzioek sor ditzaketen eskola edo ikastaro ezberdinetara apuntatuz. Deba Garaian, Urtarriletik aurrera lanbide-eskola dago martxan. Bertan langabezian zeuden eskualdeko 70 gazte ari dira lanbide bat ikasten. Eskola hau Deba Garaiko Udal Elkarte eta INEMen eskutik sortu da eta bere helburua, hain zuzen ere, langabezian dauden gazteei beste aukera bat eskaintzea da.

(14. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Asteburu triste

joan zen astekoa mondragoetarrontzat. Familia berako lau kide eta lagun bat kotxe istripuan hilik suertatu ziren (12. or.)

ELKARRIZKETA

Esteban Illarramendi

Eskola Politeknikoko irakaslea, 30 urte bidaiak guztiontzat antolatzen

(17. or.)

PODIUMA

Andoni Villar,

Pirineosen sarritan ibilitako mendizalea dugu. Teknika ugari ezagutzen ditu, eta kontatu digu nola heldu zen hauek menderatzera. (19. or.)

FOTOZAHAR SARIKETA

Badaukagu beste bideo baten irabazlea. Datorren alean Vigurik eta ITTek emandako telebistaren irabazlearen izena izango duzue, aste honetan zozkatzen bait da. Zorte on eta jolastu gurekin!



MODELO BERRI-BERRIA MUGARRI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

5 OSTIRALA

— Zinea: Alai:

"Acusados".

Novedades(Bergara): "La bestia de la guerra" 10,30etan.

— Bertsolari eta Trikitilari

jaialdia: 10etan Eskoriatzako Herriko Zinemak. Bertsolariak: Lazkano, Eguskitze, Gorrotxategi, Enbeita. Trikitilariak: Martin eta Imanol Epelde eta Iturbide.

— San Migel txikiak Oñatin:

-10,30etan: "Kaixo" taldearekin jaialdia.

-12,30etan Iturri Puben kontzertua: "Ancha es Castilla".

— Goardiako farmazia:

Ruiz Torre, Ferrerías.

6 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Acusados"

Novedades: Absolución, 10,30etan.

— San Migel txikiak Oñatin:

-4etan: txirrindulari lasterketa.

-6etan: Futbito txapelketaren finala.

-10,30etan: Dantzaldia "Hator" taldearekin.

-12,30etan: Ongi Etorri tabernan, Kontzertua: "Sanchis y Joco".

— Kontzertua: 9,30etan

Are-txabaletako Parrokian, Sama-niego eta Aretxabaletako Abes-batzak.

— Goardiako farmazia:

Corcuera, Elcano.

8 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Acusados"

-Novedades: "La bestia negra" 5, 7,30etan 10,15etan

— Goardiako farmazia:

Irizar, Erguin.

9 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Acusados"

— Goardiako farmazia:

Amezua, Santamaina.

10 ASTEARTEA

— Goardiako farmazia:

Aurora Ruiz, Maalako Errabala.

11 ASTEAZKENA

— Zine Kluba:

8,30etan Amayan, "Querido detective", Jim McBriderenak.

— Goardiako farmazia:

Morales, San Andrés.

ERAKUSKETAK

— Jon Mercero: pintura-erakusketa, "Del asesinato considerado como una de las bellas artes", Galería 44ean (Zerkaosteta, 18). Maiatzaren 15era arte.

— María Luisa Maiztegi: pintura-erakusketa "Paisajeak", Etxe-Aundin jatetxean (Torre Auzo 9, Oñati). Maiatza osoan.

IRTEERAK ETA BIDAIK

— Herri Urratsera: AEDek antolatuta. Irteera: goizeko 8etan Garibaitik. Prezioa: 500 pta. Maiatzaren 14ean Senperen.

— Orbaizeta-Donibane: Maiatzaren 13an eta 14ean (igandean "Herri Urrats"era). Irteera: larunbatean goizean; Itzulera: igandean iluntzean. Gaua Baigorriko aterpean pasatuko da. Prezioa: 2.000 pta. Izenemateko epea: asteartean, 9an bukatzen da (Besaiden). Oharra: ordainketa apuntatzerakoan.

— Paris-Versalles: Bus literan. Maiatzaren 24tik 29ra. Izenemateko epea hilaren 15ean bukatzen da (Gazteri Batzordean). Plaza mugatuak: 18-30 urte bitarteko 40 gazte. Prezioa: 9.400 pta.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan
Martin Elexpuru, Mikel Arregi,
Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Mertxe Garai,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.200 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Obrak dira nagusi; gizonak, berriz, iragankorrak

Iraganeko edozein aro hobea izan zela entzun ohi dugu sarri. Ez nago ados, ezin naiteke egon. Eta nire ezadostasunaren zioa oso xehea da, xehea bezain argia, ene ustez: giza-kiok dugun altxorrik preziatuena etorkizuna da. Iragana hila dago, orainaren errealtatea ere zalantzan ipin daitekeelarik.

Behin adin batetara iritsiz gero, bizitzaren metroari geratzen zaion zatia erdia baino gutxiago delarik, atzera begira aritzen gara askotan, iraganeko oroitzapenek erakartzen gaituzte eta. Luzeagoa dugu ibilitako bidea datorkigukeena baino, eta horrek maiz gugan ezinegon kilika-garria sortzen du, gureak egina balu bezala.

Iraganaren aldeko baieztapen horrek okerrera garamatza. Gizonak bere ahalmenaren mugatasuna onartu behar du, lehenengoz eta behin jakin behar duguna zera delarik, ezina zaigula denborari balazta ezartzea. Beraz, alperrik gabiltzala funtsik gabeko nigar eta lantua haizatzten, ariketa horrek ez bait digu barne etsipena haundiagotzeko bide besterik eskaintzen.

Irakurle gazteak ez du, nonbait, tituluaren jatorria ezagutuko; eta ziur aski, bost axola berari, "zaharra beti zahar" pentsa lezakeelarik. Bri-

tania Haundiko lehen ministrari izandako Churchill lodiaren esatera dugu goikoa, eta gaztearen ahalezko pentsakizunaz bat natorrela zera erantsiko nioke, eguzkia egunero eta sortaldetik irteten dela. Testigua eskuz esku igarotzen da, beti aurretantz, lasterketa amaitu arte. Eta guri indarrak faltako balitzaizkigu... atzetik datozen beste batzuk ahaleginduko lirateke proiektuan.

Betiko lagunaren arteko bileretan, mihiak dantzan ipintzen direnean, joera ulergarri batek "orduko" jazoerak, "orduko" bizimodua, "orduko" une gogoangarriak azalteratzen dizkigu mahai gainera. Esperientzia haiek (eta hona hemen mekanismoaren zergaitikakoa!!!) gure izakeraz —guk bizi izandako gertaerez— bat dagite eta ez genuke "zer garen" ulertu ahal izango "orduko" inguru-giro hura gabe. Baina horrek ez du adierazi nahi —ez luke nahi, behintzat— gure izakera hobeagotezintzat hartu behar denik.

Iraganaren aldeko baieztapenak, berriz diot, garaituaren erretolika dirudi, etorkizunari —era ebakitzaille batez— aukera guztiak eragozten dizkiolarik. Ez dut uste hori baino ezkorrago izan daitekeenik.

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

Krabelinik ez Maite Idirinentzat

Benetan zoragarria izan zen joan zen larunbatean Maite IDIRIN eta berak zuzenduriko EUSKAL KAMERATAK eskeini ziguten kontzertua. Doinu dotoreak, biziak eta xamurrak.

Baina ez zen Maite IDIRINentzat krabelinik izan: inori ez zitzaion horrelakorik burutik pasatu, itxura denez. Eta niri, egia esan, lotsa apurtxo bat eman zidan amaiera triste hark; niri eta, hori pentsatu nahi dut, han geuden guztioi: Amaiaiko antzokiko immensitatean kuxkurtu ginen hamabi (HAMABI !) andra-gizoni.

J. G

“etxaixat, martxa hontan zeozer pentzau bierrien gasak” beraz, potearen puntu honetan, nahiz eta arrazoi puntua eduki, urrunegi zozela pentsatzen dut; dena dela, puntu hau ez dagokie, inolaz ere, gazteei bakarrik.

Arrasateko gazteria ezagutzen duena ez da harrituko Sebero Altube Plazan trikitilari emanaldi batetan jende gazte gutxi ikusteaz. Azken hamar urteotan, Santamas jaietatik kanpo, zenbat trikitilari saio izan dira, ba, Arrasaten? Arrasateko zenbat gazte dakigu trikitixa behar den bezala dantzatzen? Dena dela, trikitilari saio hauek deprimentek izan beharrean, antolatzaileek, euren, espero baino arrakasta handioagoa izan omen dute; hori da entzun dudana.

Gutunaren bukaeran, oso lerro gutxitan azaltzen dituzun ideiei buruz honako hau esan nahi dizut: Egia da gaur egun gazteria nahiko geldirik dagoela, edo ez duela iniziatiba handirik, zergatik ukatu? Baina ezin da Arrasateko jende gazte guztia kajoi batetan sartu eta berari buruz balorazio uniforme egin, zeren eta asko dira, honetan eta hartan, han eta hemen, konpromezuren bat dutenak. Arrasateko talde, elkarte etab. etako partaideak ezagutzen badituzu, berehala konturatuko zara partaidetariko asko gazteak direla eta nere iritzian, behintzat, azken bi-hiru urte hauetan jende gaztearen konpromezu maila eta eragina areagotzen ari da; eta dudarik ez, honen emaitzak pixkana-pixkanaka agertzen ari dira. A! eta zerbaitekin konprometituta dagoen jende gazte artean denetik dago, gaur egun Arrasaten rock zale eta “porrozale” direnen artean ere jende oso jatorra eta langilea dago. Ez izan zalantzarik!

Gutun hau amaitzeko, nik ere gazte asko (ez denok, ez bait da beharrezkoa) mugi daitezen animatu nahi ditut, norberari gehien gustatzen zaion edo gehien motibatzen duen ihardueran parte hartuz, norberak bere lekutik ahal duena aportatuz. Arrasateko gazteria “martxan” jartzea eguneroko lanaz lortuko dugu eta ez urtean behin edo birritan negar egiteko besterik balio ez duten gutun beltzak plazaratuz.

“G.P.”

“Zer gertatzen da Arrasaten?”

A. A.ri erantzunez

Asko harritu ninduen joan zen asteko Arrasate Pressen izenburu horrekin argitaratutako gutunak. Gutxi gora behera gutun horrek honako hau zioen: Gaur egun jende gazteak poteatu besterik ez du egiten, eta trikitilari saio batera jende gaztea ez hurbiltzea deprimenean iruditzen zajo. Gutunaren erdialdean, berriz, zera irakur daiteke: “Zer nahi dugu gaurko gazteok “Rock jaialdiak” bakarrik kanutoak erretzeko?”. Eta, gutuna bukatzeko, Arrasateko gazteok bizi dugun egoera deprimentea errepikatzeaz gain, egoera hau aldatzeko denon artean gauzak antolatzera animatzen gaitu A.A.k.

Zure gutuna birritan irakurri ondoren, pixka bat moskeatzeaz gain, zera pentsatu dut: A.A. honek zer lortu nahi du gutun honekin? Eta, benetan, oraindik, nahiz eta saiatu, ez dut asmatu erantzun bat aurkitzen.

Begira, labor izan beharko badu ere, zuk aipatzen dituzun puntuei buruzko nire ikuspuntua honako hau da:

Arrasateko gazteok bizi dugun giroa bere ezaugarri bereziak ditu eta orokorrean nahiko edo gehiegi poteatzen badugu ere, ohitura hau azken urteotan, onerako edo txarre-rako, beherantz doa, tabernarien kexak maiz entzuten ditugularik

Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

ASA ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.


- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Arrasaten eskaintzen den osasun zerbitzua ona dela uste duzu?



Jose Arana
(jubilatua)

Ez, txarra. Bai anbulategian eta bai ospitalean. Behin larrialdietara joan eta radiografiak atera behar nituela esan zidaten. Ospitalera joan eta kasurik ere ez zidaten egin.




Rosario Elostarbe
(etxeakoandrea)

Ez oso txarra. Txaketaz beste aldatzen dugu medikuz. Ez zaie gaisoak ezagutzeko astirik ere ematen.



Gemma Lasaga
(etxeakoandrea)

Egia esan nik ez dut askotan medikuarengana joan behar izan. Orain arte gustora egon naiz. Premia izan dudanean ondo atenditu naute.



Sebastian Txintxurreta


Medikuarengana gutxitan joan naiz, baina joan naizenean oso ondo atenditu naute. Egunkarietan eta irakurri dut oso egoera defizitarioan gaudela baina ez dakit.

LENIZ


AUTO ESKOLA

ARRASATE TA ESKORATZA.n

TEORIKA, rako



PRAKTIKA, rako



I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ERROTULAZIO KONTZEPTU BERRIA



EYKO-ROT

- FURGONETAK, ERAKUSLEHIOAK ETA FATXADAK ERROTULATU
- BARRU ETA KANPOKALDEAK SEINALEZTATU
- ANAGRAMAK ETA LOGOTIPOAK SORTU

Gipuzkoa Etorbidea z/g (Legarre pabiloi Induatrila) Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE

“Krisialdi ekonomikoa hoberen jasan duen Gipuzkoako inguruetakoa bat izanak da Arrasateri bultzada handia eman diona; bultzada hau enpresa pribatu berrietan eta laster inizatiba pribatuko bi industrialderen erai-kuntzan zehazten delarik. Alkatearen eritziz, “Industrialdeko zati bat bihurtzen ari da eta garai berriei egokitzen”; langabezi indizea ez dela %20ra iritsi azpimarratzen du. Azken datu hau kooperatiba-sistemaren ondorioz gertatu dela uste du eta enpresa-mota honetan lan-burtsa garrantzitsua mantendu dela gogorarazten du, plantilak murriztu gabe.

(Gipuzkoako Merkataritza, Industri eta Itsaske-ta Bazkunde Ofizialaren “Economía Guipuz-coana” aldizkarian)

“Diario 16” egunkariaren arabera, Jose Amedo Fouce komisariordea 1982an hilik dagoen Txomin Iturbe Abasolo ETako buruarekin harremanetan hasi zen ETArekin negoziatzeko asmoz (...) Orduan Amedo komisariordea Bilboko Poliziaren Goi-Burutzako Informazio-Brigadan zegoen. Egunkari honen arabera, Amedo euskal errefuxiatuak sarritan egoten ziren Baionako taberna bateko jabearen, ETako fundatzaileetako baten aiaia, bitartez jarri zen harremanetan Txominekin”.

(Egin egunkarian)

“Entitate “herritar”en batek euskara alorrean lan egin nahi badu, bidezko denez, jokuaaren arauak onartu behar-ko ditu; AEKren kasuan, irakurri, irakaslegoaren homologazioa, auditoriak, etab... Jokuaaren erregela hauek onartzen ez diren bitartean, aurrekontuetan proposatzen den legez, ezin dezakegu onar AEK eta Korrika bezalako inizatibak subentzionatzea, azken finean konstituzioa-ren kontrako zerbait delako eta gure herriko talde ideo-logiko batekin bat eginik dagoelako.

(Antonio Herzog, Bergarako Udaleko zenego-tziak (EE), DV egunkarian)


Noiz sortu zen eta zein da Leintz Zeramika-eskola-ren egoera?

Zeramika-eskola 1981ean sortu zen. Gai honetan interesaturik zegoen jende talde bat elkartu eta Udalari lokal batzu eskatu genizkion. Elkarre gisa hasi ginen funtzionatzen. Hasi- siera batean ez genekien ezer eta neska bat ekarri genuen klaseak eman ziezazkigun. Gerora, poliki poliki, ikastaroak antolatzen joan gara, hasiera batean haurrentzat bereziki. Duela hiru urtetik hona eskola indarberritu egin dela esan daiteke; bazkide- kopurua gehitzen joan da. Gaur egun, berrogeiren bat gara, eta antolatu izan ditugun ikastaroak ere gehiago izan dira. Momentu honetan lau ikastaro ematen ditugu. Goizez haurrentzakoak, zazpigarren mailan dauden herriko eskola guztietako haurrak pasatzen dira hemendik. Arratsaldean hiru ikastaro ematen ditugu, bi ordukoa bakoitza. Ikastaro haue- tan “zeramikaren hastapena” irakasten zaie. Nahiko ikastaro sakonak izaten dira, teknika guztiak irakas- ten bait zaizkie. Arratsaldeko ikastaroetan hogeita- mabi pertsona ari da ikasten. Jendea gehien bat beren aisialdia pasatzeko asmoz etortzen da, hau da, ozio- tzat hartzen du zeramika. Ikastaro hauek finantziatzeko Udalaren dirulaguntza jasotzen dugu. Ikastaroak amaitzen ditugunean, ikasleek egin dituzten lanekin erakusketa bat antolatzen dugu.


Datorren urterako ekintza desberdin ugari egitea pentsaturik dugu, ikastaro desberdinak, beste herri batzutan dauden tailerretara bisitaldiak etab. Horretarako Udalari dirulaguntza eskatu diogu, orain ikusi egin behar ematen diguten.

Imanol Aranburu

Arrasateko Leintz Zeramika-Eskolako partaidea



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a




**Klase
praktiko
eta
teorikoak**

**Olarte, 30
79 89 89**

Lagunak Oro

Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.



LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkia Taldekoa

BIDEO-EMANALDIA

ABENTURA XARMANT, ERO ETA OSO BARREGARRIA



GOONIETARRAK

Tokia: MONTERRON KULTUR ETXEA


Prezioa: 50 pta.

Eguna: MAIATZAREN 5ean

Sarrerak: MONTERRONen

Ordua: Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 4 eta 6etan

ANTOLATZAILEA: ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA



EUSKARAZKO PRAKTIKALDIAK

FAMILIA EUSKALDUNETAN

Kanpaina honetan parte hartuz euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 45.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera
(Euskara Zerbitzua)

HARTU ZURE ETXEAN

EUSKARA IKASLE BAT!

ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

T x a n d a k a

Ez diezagutela lapur
Abenduaren 14a


Aurtengo Maiatzaren lehena, azkenengo urtetakoa bezalakoa izan da, sindikatu gehienak sakabanaturik eta langile gutxi manifestaldietan. Abenduaren 14ak piztutako ilusioek, ez ote duten atzera egin beldur gara.

Orduko errentak gal zorian daude, azkeneko hilabeteotan ez zaiolako borrokari eutsi. Honela, tarte utzi zaio gobernuari, inizatiba eskura dezan, beren jokabidea sindikatuen aurrez-aurrekoa izan behar duela ulertuz, borrokaren baliogarritasuna ezerez-tuz, alderdi eskuindarren kontsent-sua lortuz, giza zorrari iruzur egin dio.

Abenduaren borrokak irekitako bideak eta ekonomi egoerek eskeintzen zituzten baldintza hobeak kontuan izanez gero, Negoziazio kolektiboa nahiko pobrea izan da. Hitzartutako komenioetako soldataren igoera %6,8koa izan da, eta urteroko lan-orduak zertxobait gutxitu dira, baina ezer gutxi ateratu da: enplegu, lan-antolakuntza, eskubide sindikalak, lan-osasuna eta antzeko gaietan.

Langileen mobilizazioa indargabetu denean, gobernuari tarte ezin hobeak eskeini zaizkio, bere posizioak berkonpondu eta inizatiba hartzeko. Gobernuaren politikak langileen aurkako hildo beretik jarraituko du. Eta datozen udal hauteskundetan, jipoirik jasotzen ez bada, ezagutuko ditugu erasoaldi berriak: Grebarako lege murriztua, lehenengoa izanik.

Hortik aparte, eta nahiz eta lanbulegoetan langabetuen zifrak gu-



J. R. Garai*

*xitu, langabeziak arazo haundienetakoa izaten jarraitzen du. Deba Garaian, adibidez, langabetu-kopurua jaitsi egin dela diote, azkenengo bi urteetan 4.773tik 4.149ra. Baina, baita esan beharra dago ere:

— Lan finkoak behin-behineko lana-

rengatik ordezkutzen direla. Kontrazio ebentual honek ustiapena handitzea dakar.

— Emakumearen diskriminazioa handitzen dihoala. Gero eta Emakumezko langabetu gehiago dago, 800 baino gehiago azkenengo lau urteetan.

— Ia kontratazio denak 25 urte baino gutxiago daukatenak izaten dira. Horrela, 25 urtetik gorako langabetuak ere gehiago dira.

Egoera honen aurrean derrigorrezkoa zaigu, tentsio eta mobilizazio sindikala berreskuratzea. Eta udal hauteskundeen aurrean gobernuak proposatu behar diguten "Bake Soziala" delako hori alde batera utzi.

Erreibindikaziorik nagusienak biltzen dituen eta langile guztien borroka eta helburuak batzen dituen mobilizazio sindikal bidea berrosatu, Abenduaren 14ean eskatu genituen ekonomi eta gizarte-aldaketa eta eskariak lortzeko.

Horretarako, lehenbizi Batasun Sindikala beharrezkoa da, lehen urrats gisa, ekintza orokorrak deitzeko; horrekin nahikoa ez bada, gobernuak eta patronalak beste Greba Orokor bat merezi dute eta.

(*) Deba Garaiko Langile Komisiotako partaidea

laburrak

✓ Tavex taldeak 5 lantegi erosi Valentzian

Bergarako "lantegia" zen, 1846an sortua, Gipuzkoako lantegirik zaharrena, beraz. Geroago "La Algodonera de S. Antonio" bihurtu zen. 1973an TAVESA sortu zuten Eloregei (S. Prudentzio) auzoan. Beranduago, Algodonera eta TAVESA elkartuz, TAVEX aterazuten.

Orain TAVEX taldeak, kanpoko kapitala sartu ostean, Valentziako bost lantegi erosi ditu, aurrerantzean bere produkzioa banatu eta zabaltzeko asmoz, beti ere ehungintzaren eremuan. Valentziara "Bergaran hazteko nahi adina lur ez dugulako eta hemen eskulana garestiago delako" joan dira.

Datozen urteetako inbertsiorik gehienak laranjaondoan lurraldeetara bideratuko dituzte.

✓ Elbarrituentzako diru-laguntzak

Zabalik dago, jadanik, elbarrituentzako diru-laguntzak eskatzeko deialdia. Eskaerak aurkezteko epea Maitzaren 24ean bukatuko dira, "Gizarte Laguntzaile"aren izenean.

✓ Geroa Amayan

Larunbatean, 10,30etan Amaya antzokian Geroa taldeak "Durango, un sueño. 1.439" izeneko obra antzeztuko du. Antzerki-obra hau XV. mendean Durangon heresiarekin erlazionaturik izandako gertaera historikoetan oinarritzen da. Lan honen egilea Ignacio Amestoy dugu.

✓ Jubilatuen eguna

Jubilatuen omenaldia Arrasaten datorren Ekainaren 3an ospatuko da. Interesatuak bazkari eta zozketarako txartelak eskuratu beharko dituzte Abaroan lanegunetan, 10etatik 12etara, epea hilaren 27an bukatzen delarik.

ANDERE

Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri.


*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromezurik gabe.

*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

Memesa

Arrasate
79 42 22



Asteazkenean bukatu zen greba

Eraikuntzako langileen greba amaitu

Asteartean ELA, CC.OO. eta UGT sindikatuak eta Ascongui-Adegui patronala konbenioa ezartzeko aurreakordio batera heldu ziren. Honen arabera, Sindikatuek bi

urtetako soldaten %6,5eko igoera lortu zuten. Greba Apirilaren 24ean hasi zen. Guztira, bederatzi egun izan dira.

Arrasaten, probintzia osoan bezelaxe, obrak geldirik izan ditugu. AKEI errausketak Plantako langileek ere, grebarekin bat egin

zuten; astean zehar Kanpazarreko mendateko planta honetan zabor mordoak pilaturik ikus zitekeen. Honen ondorioz, egunetik egunera planta inguruan usain txarra areagotu egin zen. Asteazkenean, beste obretakoak bezelaxe, AKEIko langileak plantara itzuli ziren.



Honez gero obrak hasiak dira

“Eroski”ko obrak hasi

Behin eraikuntzako langileen greba bukatu ondoren, asteazkenean hasi ziren eskabadorak lurra mugitzen. Argazkian ikusten den Musakolako eremuan Eroskik Deba Garaia osorako maximerkatua zabalduko du. Lau hilabeteko atzerapenaz, obrek urtarilean hasi behar bait zuten, badoa aurrera.

Ikerketa gazteriaz

Udalak onartu du “Invesco” enpresaren Arrasateko gazteei buruzko ikerketa egiteko proiektua. Ikerketa honen helburuak hauexek dira, gazteen baldintzak, haien jarrerak eta portaerak zeintzuk diren, eta hainbat ekintza eramateko irtenbideak bila tzea dira. Horretarako, besteak beste, inkestak eta elkarrizketa pertsonalak burutuko dira.

✓ Udaleku irekiak

Udalak datorren uztaillean udaleku irekiak antolatuko AEDren proiektua onartu du, milioi t'erdiko aurrekontuaz. AEDek ia bi milioiko aurrekontua aurkeztu zuen. Udalekuak bi txandetan antolatuko dira: Uztailaren 3tik 14era, eta 17tik 28ra; txanda bakoitzean, gehienez 6-12 urte bitarteko 250 umek hartuko du parte. Umeek matrikulatzeko 2.000 pta. ordaindu beharko dute; eta begiraleek 60.000 pta. jasoko dute.

✓ Haurrentzako Liburuen Mintegia

Eskoriatzako Irakasle Eskolak antolatuta, gaur, ostiralean, 6etan Monterronen Haurrentzako Liburuen Mintegia aurkeztuko dute. Ekitaldi honen inguruan hainbat hitzaldi ere antolatu dira ostiralerako. Goizeko 10,30etan Cesar Vazquezek “Organización de la biblioteca en la escuela y animación a la lectura” izeneko hitzaldia emango du; 3etan, eta Monterronen ere, Ana Gassó “El seminario de literatura infantil como dinamizador de la lectura” gaiaz mintzatuko da.

STIHL

**HONDA
MOTO-KIROL**

Gipuzkoako Etorbidea 7, Tfnoa: 79 11 78 ARRASATE



**PUB
HAIZEA**



**APARTAMENTU,
ETHEBIZITZA
ETA
BUNGALOWEN**

**SALMENTA
ETA
ALOKAIRUA.**

**TORREVIEJA
ETA
VILLASOLLOSAN**

Informazioa:

Enrique Mendieta
Kontzesiño kalea 6, etxabea

Artisten proposamena

Orain arte egin den Eskulturako Sinposiuma ordezkatzeko, artista gazte talde zabal batek alternatiba bat aurkeztu du Udalean. 25 orriko aurreproiektuan honako tailer hauek ikusten dira: Bideo eta argazkia; grabatua; pintura eta murla; eztabaidarako tailerra; zeramika eta arteak bere inguruan duen eragina aztertzekeo tailerra. Tailerrak zabalak izango dira, hau da, erakusketaz gain, jendeak



Zeramika ere presente dago aurreproiektuan

obraren prozesu osoa ikusi ahal izango du.

Proiektuaren helburuetariko bat herriko artistak ezagutaraztea da.



Maiatzaren 19an Kukubiltxo taldea Aretxabaletan

“Kultur Bideetan” Aretxabaletan

Maiatzaren 3tik 20ra “Kultur Bideetan” izeneko zikloa Aretxabaletan izango da. Ziklo hau joan den Martxoan pasatu zen Arrasatetik.

Kultur ekitaldi hauek LKAk, Eusko Jaurlaritzak eta Aretxabaletako Udalak antolatu dituzte. Zinea (“Eskorpion”), Kontzertuak (Samaniego eta Aretxabaletako Abesbatzak eta “Tijuana”), Antzerkia (“Hika” eta “Kukubiltxo” taldeen eskutik), Hitzaldiak (Groenlandia eta Laponiara espedizioari buruzkoak eta Ala-Delta eta Parapenteri buruzkoak) eta Dantza Saiok osatuko dute zikloa.

Rock kontzertua izan ezik, beste ekitaldi guztiak dohainik izango dira. Larunbatean Samaniego eta Aretxabaleta Abesbatzen kontzertua; eta igandean “Hika” taldearen “Eta ohea egin gabe...” antzerki obra izango dugu ikusgai.

laburrak

✓ Elbarrituentzako diru-laguntzak

Zabalik dago, jadanik, elbarrituentzat diru-laguntzak eskatzeko deialdia. Eskaerak, “Gizarte Laguntzaila”ren izenean, aurkeztu behar dira Maiatzaren 24a baino lehenago.

✓ Gazte erasotua Bergaran

Arrate Elejabarrieta, 21 urteko durangarra eta “Hezkuntza Berezi”ko ikaslea ezezagun batzuk erasotu zuten ostegun goizean. Mozorrotutako tipo bik etxetik interakoan harrapatu eta etxera berriro sarrarazi zuten. Hemen aurpegi, bular eta besoetan labanatzeko batez hainbat ebaketa egin eta zenbait ile-xerlo kendu zizkieten. Arratek lehenagotik ere telefono bidezko mehatxuak jaso izan ditu. Ezezagunak ez ziren identifikatu, eta etxeko altzari batzuk hondatzeari ere ekin zioten.

Ekintza salatzekeo Bergarako hainbat ikastetxek greba egin zuten ostegunean. 12,30etan manifestazioa izan zen eta honen ostean, Saihesbidea moztu zuten. Ertzaintzak zenbait karga egin zuen, eta gazte bat atxilotu.

✓ Alkateak ospital berriaren alde

Asteazkenean Mankomunitatean izandako bileran. Deba Garaiko alkateek ospital berriaren beharra azpimarratu zuten. Datorren asteazkenean Sanitateko sailburuari bialtzekeo eskakizun honekin dokumentu bat aurkeztuko dute.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diaknostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate



San Frantzisko eliza guztiz betea zegoen

Asteburu tristea arrasatearrontzat

Errepidea zein krudela izan daitekeen ikusteko aukera izan dugu berriro ere. Joan den hilaren 28an, Conchas de Harotik gertu, familia


beraren lau kidek eta euren lagun batek heriotza aurkitu zuten R-5 baten burdinen artean harrapatu-rik. Kotxeak kamoi-zisterna batekin topo egin zuten. Istripu gogorraren ondorioz, honako mondragoetar hauek hil ziren hi-

lik: Luis Gandarias Miguel, 43 urtekoa eta "Arrasate C.I."ko langilea; bere emaztea zen M^a Angeles Alamos Menta, 39 urtekoa, eta "Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentru"ko irakaslea; hauen alaba, Ainhua, 12 urtekoa; semea, Luis Angel, 16 urte-

koa eta M^a Belen Rodero Rodero, 17 urtekoa eta familiaren laguna. Kamioaren txoferra, bere aldetik, zauriturik suertatu zen.

Istripuaren momentuan errepidea bustita zegoela eta, kotxeak laban egin zuten. Familiakideak, jatorriz Errioxakoak, Pablo Uranga kalean bizi ziren.

Astelehenean, hilaren 1ean, eguerdiko 12,30etan hileta-elizkizunak izan ziren San Frantziskotarren Elizan. Elizkizunak behin bukatuta, lau familiakideen gorpuak Logroñora eraman zituzten. Maria Belen Rodoren oroimenezko meza Uribarriko parrokian izan zen, 7etan. Bere gorpua Arrasateko kanposantuan lurperatua zuten. Herri osoarentzat dolu eguna izan zen.



Manuel Sebastian eta Miguel Vivar, PSOEk bi zinegotzi

Lanpostuen proposamenak eta PSOEren lau mozioak, gaurko plenoan

Gaurko plenoan honako puntu hauek tratatuko dira: lanpostuen balorazioa dela eta, pertsonalaren ordainzari-mailak aplikatzeko proposamena; hamabi udal-lanpostu

sortzeko proposamenak, eta PSOEk zinegotzien lau mozio edo emendakinen aurkezpena.

Hiru administrari, Administrazio Orokorreko Teknikaria, Obra Publikoetako Injieneru Teknikoa, Udal-tzaina, Udal Euskaltegiko Irakasle, Biltegizaina, behin behineko Enplegu-Dinamizatzailea eta IMI Zentruko aldi baterako lau monitorean lanpostuen oinarriak izango dira onartuko direnak plenoan; proposamenak aurrera egiten badute, jakina.

Bilkuraren amaieran PSOEk honako mozio hauek aurkeztuko ditu: "Autonomia lokaleko Europako Gutuna, Udalak indartzeko marko bezala"; "Arrasatek ez du nahi bonbarik ezta pakete-bonbarik"; "Aurtengo Udal iharduketari buruzko mozioa" eta "Kartelak ezartzeari buruzko Udal arauak onar daitezen".

■ Museko finalak

Gaur 7etan Alkartu elkarteak mus taxpelketaren finalak jokatu dira. Lehengo posturako Torrepe eta Leintz lehiakatu dira. Hirugarren posturako, Egipek eta Uribarrik neurtuko dituzte euren indarrak. Honen ostean, "Plaentzi Bikotea"k alaituta, afaria izango da.

Jaiotzak

Regos Gallart Maier,
Apirilaren 23an.
Alpuna Velasco Oyane,
Apirilaren 26an.
Herrozo Sanchez Henar,
Apirilaren 26an.
Mouro Baquerin Roberto,
Apirilaren 27an.
Unadagoitia Txurruka Olatz,
Apirilaren 24an.

ATOR



PEUGEOT TALBOT


INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



Goazen Tren Txu-Txura!

Udaberriarekin batera jaiak datozkigu, eta jaiekin batera **barrakak**. Joan den astean San Andreseko auzoari tokatu zitzaion txanda; datorren asteburkaeran, berriz, Musakolako jaietz disfrutatzeko aukera izango dugu, eta bertan ere, haur zein helduontzat barrakak ezinbesteko egingo zaizkigu.

Arrasateko San Viator Ikastolako eta La Merced ikastetxeko haur abeslariak **Murtziako Kanta Misiolarien XI**. Jaialdian hartu zuten parte joan den Apirilaren 22an. Abesbatzak, OHoko 50 hurrek osatua, hamaikaren artean hirugarren postua lortu zuen. Ez dago txarto talde honek lortutakoa! **“Zu itsasoa, ni bazterra”** izeneko



Aurak oso pozik joan ziren Murziara

abestiarekin, hain zuzen. Kanta eder honen estrofa batek zera dio: **“Nere etxea da bihotza ez dugu inongo giltzaren beharrik. Nere atea ta leihoak aurkituko dituzu beti zabalik”**

Blanca Fernandez de Ganboa eta **Iñaki Madiñanela** gazteak Martxoaren 17an ezkondu ziren Arantzazun, Zorionak

EPELDE

izen propioak

☐ **José Antonio Ardantza**, 47, Ekainaren 6an Piriniotako Lan Komunitateko lehendakaritza hartuko du, karguan Jordi Pujol ordezkatzu. Elkarte hau 1985ean sortu zen Europako Kontseiluaren babespean. Erorrioxarra izanda ere, lau urtez izan genuen Mondragoeko alkate. Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia bi urtez izan ostean, 1985etik aurrera Euskal Komunitate Autonomoko lehendakaria dugu.

☐ **Joxean Tolosa**, 34, pelotari amezketarrak datorren igandean, hilak 7, eskuz banakako finala jokatuko du Retegi Ilaren aurka, Anoetan. Batxilergoa Donostian egin eta gero, 1973an Arrasateko Eskola Politekinikora etorri zen. Eskolan emandako hiru urteetan Ofizialia eta Ingeniaritzako bi kurtso egin zituen, elektronika espezialitatean. Berak esan bezala, Mondragoen jokatu zuen lehenengo aldiz zuriz jantzita.

☐ **Iñaki Arregi**, 33, mondragoetarra, EEko Heziketa eta Argitalpen Idazkaria eta partidu bereko Batzorde Eragileko partaidea. Magisteritza Gasteizen ikasi ondoren, Arrasaten (Ferixalekuan), Mutrikun eta Oiarzungo eskoletan ari izan zen lanean. Oraingo kargura igaro aurretik EEko Gipuzkoako antolaketa arduraduna izan zen bi urtez. Orain Hondarribian bizi da.

☐ **José Antonio Gay**, 18, arrasatearra. Gipuzkoako junior mailako Atletismoko txapelketan urrezko bi domina eskuratu ditu, 200 eta 400 m.ko lasterketetan. Hilaren 23an eta 24ean Salamancan izango diren Espainiako Txapelketetan esku hartuko du 200 m.tan. Atleta bikaina izateaz gain, José Antonio “Geografia eta Historia” ikasten ari da Gasteizen.



HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako

klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

70 gazte lanbide bat ikasten

Azken urteotan langabeziaren arazoa dela eta, beroni nolabait aurre egiteko edo jendeak beren heziketa maila hobetu behar duela ari gara entzuten instituzio ezberdinetatik luzatzen dizkiguten mezuen bidez. Azken hilabeteotan Arrasaten, Deba Garaiko Mankomunidadearen babespean, eskola berezi bat jarri da martxan, Deba Garaiko Lanbide-Eskola eta, hain zuzen ere, langabezian dauden gazte batzuri lan-merkatuan integratu ahal izateko tresnak eskaintzea da eskola honen helburua.



Lehen Cerrajería orain lanbide eskola

Eskolaren sorrera eta garapena

Deba Garaiko Udal Elkarteak 1988an INEMekin harremanetan jarri zen eskualdean lanbide eskola bat martxan jartzeko asmoz. Eskola honen helburu nagusia, goian aipatu bezala, eskualdean langabezian dagoen gazte jendeari nolabaiteko irteera aurkitzen laguntzea da. Eskola honek beste eskola arruntekin gonbaratuz gero, baditu desberdintasun garrantzitsu batzuk. Batetik, bertan ikasleek ikasiko dituzten lanbideak, ez dira eskola arruntetan ikasten, ez eskola profesionalean ez eta beste ikastetxe edo eskoletan ere. Eta bestetik, erakunde publiko, Udal Elkarte eta INEMen babespean dago.

Eskola martxan hasteko Mankomunitatea Hezibide Elkartearekin jarri zen harremanetan, eskolaren

ardura hartuko zuen irakaslea kontratatzeke asmoz. Irakasle hau Sabin Martiartu dugu eta bera da eskola aurrera ateratzeko ardura duen pertsona.

Eskola honetan ikasleek bost

honetan igeltzero edo iturgin gisa lanean ari diren pertsonak, hamalau edo hamabost urtekin lanbidea ikasteko eskola utzi duten pertsonak izaten direlako normalean. Beren lanbidea ondo ezagutzen duten arren, askotan arazoekin egiten dute topo, planoak eta ulertzeko orduan beren ezaguera maila baxua delako edo. Bestalde, eta bitxikeria gisa, irakasleak kontratatzeke orduan igeltsari-irakaslea izateko pertsona bakar batek izena eman zuela aipatzen digu. Kultura orokorreko irakasle izateko, aldiz, 50 pertsonak eman zuen izena. Datu hau aipagarria izan daiteke lanbide hauetan dagoen profesional kualifikatuaren beharra neurtzeko orduan.

Eskolak Urtarrilean ireki zituen ateak eta ikasleek bertan hiru urte pasako dituzte. Hirurogeitamar ikasle ari dira lanbide ezberdinak ikasten, Deba Garaikoak guztiak eta berauen artean bederatzi neska aurkituko ditugu. Irakasle hauek INEMetik soldata antzeko bat jasoko dute lehen sei hilabeteetan, ondoren Udal Elkarteak kontratatatu beharko dituztelarik. INEMek ikasleei 565 pta. ordaintzen die eguneko eta beste herri batzuetatik etorri behar duten ikasleei 865 pta. bidaiak ordaindu ahal izateko. Dena dela, INEMek oraindik ez die ezer ordaindu eta Udal Elkarteak 33.000 pta. aurreratu

Ikasleek bost lanbide ezberdin ikasteaz gain, hiru eraikuntza berriztu beharko dituzte: Beren eskola, Bergarako gartzela eta Aretxabaletako Iraban baserria

lanbide ikasi ahal izango dituzte, Iturgin, arotz, igeltzero, instalatzaile elektriko eta mintegi eta basoak. Beraz, eraikuntzarekin zerikusia duten lanbideak. Arlo honetan ez dago irakaskuntza profesionalik eta behar handia dagoela azpimarratu digu Sabin Martiartuk. Momentu

die ikasleei dagokien dirua noiz jasoko duten ez bait dakite.

Ikasketen funtzionamendua

Ikasleek lanbidea ikasteaz gain hiru urte hauetan bailarako bi eraikuntza berriztu beharko dituzte. Bata Bergarako Gartzela eta bestea, Aretxabaletako Iraban baserrian.

Etxe hauek berriztea nahita-ekzo baldintza da, INEMek onartutako lanbide eskolaren aurreproiektuan bi berriztapen lan hauek jasotzen bait ziren. Lan horiek burutzerakoan, arazoak izan ditzakete lanbide-eskolakoek. Horrez gain, beren eskola ere ia osorik berriztu behar izango dute. Eskola Cerrajera enpresak 22 urtetan erabili ez duen "planta" batean kokaturik dago eta bere kontserbazio-egoera oso txarra zen. Honen ondorioz ikasleak eraikuntza osoa goitik behera konpondu beharrean aurkitu dira, teilatua, komunak, argiak, gelak etab. egin dituztelarik. Nahiz eta lan hau bukatu gabe egon, egin duten lana eta ahalegina aipagarriak dira. Sabin Martiartuk beste lanbide-eskola batzuetan, Eibarrekoan, adibidez, beren eskola konpontzea dutela helburu aipatu digu, eta Deba Garaikoak, berriz, hori egi-teaz gain, beste bi etxe konpondu behar ditu.

Ikasketa prozesua hiru epetan banatu da. Lehen epea: prestakuntza epea, epe honetan ikasleek, sei hilabetez eta goizez, matematika, kultura orokorra eta dibujo ikasten dute; arratsalde, tailerretan aritzen dira. Lehen epe honetan ikasle guztiak lanbide

irten ondoren, beren enpresa martxan jartzeko gai izan daitezten.

Ikastalde desorekatuak

Ohizko eskoletan ikasten ari-tzen diren ikasleen artean norma-

aukeraketa bat burutu zen.

Ikasleen adina oso desberdina da, gehiengoa 17 urte ingurukoa; baina 32 urteko ikasleak ere aurkituko ditugu. Beren ezaguera-maila oso desberdina da, batzuk



Ikasleek ahalegin handia egin dute lantegia eskola bihurtzeko

lean ez da egoten adin desberdintasun handirik, ez eta maila akademikiko desberdinik ere. Lanbide-eskolako ikasleen artean, oster,

idazten eta irakurtzen oso gaizki dakitelarik. Sabin Martiarturen hitzetan "eskola honetan ikasten ari diren asko alde guztietan baztertuta aurkitu diren pertsonak dira, eskolan, etxean zein lanean. Desberdintasun honek klaseak emateko orduan arazoak sortu ei ditu eta horren ondorioz, klase teorikoak hiru mailatan banatu dituzte. Maila bakoitzean 23 ikasle aurkituko ditugu, nahiz praktikak egiterako orduan denak elkartu egiten diren. Hiru urte horiek pasatzean Deba Garaiko lanbide-eskolaren etorkizuna zein izango den erabakitzeke dago, urtetik urtera ez bait da ikasle gehiago hartuko eta hiru urte horiek bukatzean, beste erabaki edo proiekturik aurkeztu ezean, eskola ere berez desagertu daiteke eta.

Hiru urte pasatzean, Deba Garaiko lanbide eskolaren etorkizuna zein izango den erabakitzeke dago

guztietako praktikak egin behar dituzte, ondoren gehien atsegin izan dutena aukeratzeko.

Bigarren epean: kualifikazioa; ikasleek beren lanbidea ikasiko dute eta azken epea: espezializazioa delakoa izango da. Azken epe honetan ikasleei kooperatibismo eta gestio klaseak ere emango zaizkie eskolatik

desberdintasun handiak aurkituko ditugu.

Bertan eskualdeko 70 ikasle ari dira ikasten, gehiengoa Arrasatekoa delarik, 39 alegia. Bertan ikasteko 148 eskaera jaso zituzten, baina bertan gehienez 70 ikasle ikas dezakeenez, egoera ekonomiko eta pertsonalak kontutan hartuz eta ikasleen motibazioen arabera,



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak




ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia 1, Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

Erdiko kale 79 19 37



Ferrerías 79 87 62

EPELDE

Argazki
denda

Iturriotz 24



LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

Korpus-eko Zubia

Maiatzaren 24etik 28ra

- * Salou—10.000 pta.
pertsonako;
gela bikoitza.
- * Portugal—18.500 pta.
pertsonako,
gela bikoitza.
- * Paris—21.000 pta.
pertsonako,
gela bikoitza.



*Elektronika artikuluen
salmenta*

J.Carlos Guerra 1, Tfnoa 79 91 64




Kontzesiño, 2 Tfnoa: 79 14 06

Gorka

ILEAPAINDEGI
MIXTOA

Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327
ARETXABALETA



SAMEGO
GARBIKETAK

Alfonso X. Jakintsua 5
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE



**ARAMBURU
COTEMAR**

garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



HAURTOKO
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE


UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa
bazkariak
eta
famili bilerak**

Esteban Illarramendi, 30 urte arrasatearrontzat bidaiak antolatzen

Gaur egun antolatutako bidaiak ez dira batere arraroak. 70. hamarkada bidaia agentzien garapena eman zen eta ondorioz beraiek eskaintzen dituzten zerbitzuak oso hedatu ziren, berauetako bat antolatutako bidaiak izanik. Baina arrasatearrok berrogeitamargarren hamarkadaren bukaeratik aurrera antolatutako bidaia berezi batzuek disfrutatzeak aukera izan dugu. Eskola Politeknikoaren itzalpean, Esteban Illarramendi izan da urte guzti hauetan berauen antolatzailea eta oraindik lan horretan segitzen du.



Esteban Illarramendi

— Arrasate Press: Esteban, zerk bultzatu zintuen bidaiak antolatzen hasiera?

— Beno, guk lehen bidaia 1958an antolatu genuen. Urte horretan Bruselas-en, Feria Universal-a ospatzen zen eta, hori zela eta, Don Jose M^{re}i hara joateko bidaia antolatu behar genuela bururatu zitzaion. Nik hartu nuen bidaia hura antolatzeko ardura eta oso arrakastatsua suertatu zen, zeren hasiera batean autobus bat betetzeko asmoa bagenuen ere, azkenean hiru autobus bete genituen. 105 pertsona joan ginen. Eskolako irakasle batzuek joan ziren, baina gehienak ikasle ohiak izan ziren. Garai hartan kanpingak e-

Lehen bidaia 1959an antolatu genuen eta harez gero urtero antolatu ditugu

gon bazeuden, baina ez zintekin gonbaratu daiteke garai hartan zegoen azpiegitura eta gaur egun dagoena. Orduan jende gutxiago joaten zen oportet. Bidaia hura hamazortzi egunetakoa izan zen. Hori izan zen Eskolako bidaien hasiera.

— Lehen bidaia hori antolatu ondoren eta jasotako esperientziaren arabera, bidaiekin segitzea erabaki zenuten?

— Beno, hurrengo urtean ez genuen bidaiarik antolatu, baina 1960. urtean, garai hartako Probintziako Lanbide-Heziketarako Batzordeak delakoak ikasleekin bidaiak antolatzeko proposatu zuen eta handik aurrera urtero urtero antolatu izan ditugu

bidaiak.

— Zein da bidaia horien helburua?

— Beno, guk kultur bidaiak antolatzen ditugu. Museoak, erakusketak eta horrelakoak bisitatu ohi ditugu kanpora joaten garenean. Hasieran, lantegiak ere bisitatu ohi genituen. Merkatal Ganbararen bidez, beren lan egiteko erarengatik edo interesgarri izan zitezkeen lantegien berri izaten genuen eta horiek ikustera joaten ginen.

— Harrera ona izan dute bidaiak urte guzti horietan zehar?

— Bai oso harrera ona. Pentsa ezazu! Normalean Abuztuan bidaia bat egiten dugu eta aurreko urteko Irailerako bidaia osatua egoten da. Dena den, urtean zehar

ere antolatzen ditugu bidaiak. Aurten esaterako, Aste Santutan

Italiara egin

dugu bidaia

eta Ekainean

Eskola eta San

Viatorreko i-

kasleekin beste bidaia bat antolatuko dugu.

— Zuek antolatutako bidaiak bala dute abantailarik bidaia-agentzia batek antola ditzakeenekin gonbaratuz gero?

— Nik baietz esango nuke. Guk bidaiak beti autobusez egiteaz gain kanpinetara joaten gara. Horrek bidaia oso merkatzen du

eta horrez gain, janaria ere Arrasatek bertatik eramaten dugu. Hau da, nahiko bidaia merkeak antolatzen ditugu eta era horretan Europa osoa ezagutzeko aukera izan dugu diru asko gastatu gabe.

— Urte guzti horietan anekdota edo bitxikeria ugari ere gertatuko zitzaizuen?

— Bai, jakina, denetarik gertatu zaigu. Behin Pariseko kanpin-gan geundela nahiko gauza farragarria gertatu zitzaigun. Sukaldaria paella gertatzen ari zen eta arroz gutxiegi zuela konturatu zenean, arroz bila bidali ninduen. Supermerkatura joan eta erosi nuen. Sukaldaria, nik ekarritakoa beste arrozarekin nahastu ari zela, harri koskorrak ager-

tzen zirela eta, paketea ondo begiratu ondoren, txakurrentzako arroza zela konturatu ginen.

— Eta arazorik ez duzue inoiz izan?

— Egia esan urte guzti horietan, nahiz eta ia Europa osoa zeharkatu, ez dugu arazo larririk izan. Autobusa behin edo behin hondatu izan zaigu, edota aduanaren batean arazo txikiren bat izan dugu, baina beste gauzarik ez.



Arrasate Kirolak, kategoriari eutsi

Nahiz eta galdu azkenengo partiduan (26-22, Usurbilen kontra), Arrasate Kirolak taldeak ez du galduko bere kategoria (2. Dibisioa), bere atzetik zetorren Beasaingo La Salle bere azkenengo aukera galdu bait zuen. Larunbatean, Donibaneren kontra agur esango diote denboraldiari Pitxi Herreroren jokalariek. Arrasate Kirolak 10. postuan dago eta, larunbatean galdu arren, postu hau mantendu egingo luke (11. postutik 14.era dauden taldeak jeitsiko dira).



Euskadiko Sokatira Txapelketa: Eskoriatza bigarren

Joan den astebukaeran Laudion izandako 600 kilotako Euskadiko Sokatira Txapelketan Eskoriatzako taldea bigarren suertatu zen, Erandioko Gohierriren atzetik. Honako gazte hauek tiratu zute sokatik: José M^a Lazkanoinburu, Enrike Idigoras, Balentin Egaña, José Antonio Markaide, Santi Iparragirre, Mikel Olalde, Mikel Ortueta eta Rafa Galvez. Taldearen entrenatzailea Maximo Inurrategi dugu.

Urta deskalifikatua

Soroa III.ak Juan José Urta deskalifikatu zuen 2. mailako final laurdenetan. Nafarrak 12an utzi zuen

arrasatearra. Urta kanpoan gelditu ondoren, badauzkagu aurtengo final-aurrekoak jokatu dituzten lau pilotariak: Soroa III-Murga eta Urzainki-Muntion.

Eta pilotarekin jarraituz, Bergaran izandako Deba Arroko Txapelketaren finaletan Igor Gonzalezek eta Lordi Zuazubiskar bikotea garai-le suertatu da infantil mailan.

Lore lurrindegia

Goi-kosmetika eta lurringintzan espezializatua

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99

UGARTE

industri hornidurak

Arrasate pasalekua

Tfnoa: 79 73 00-8396

Telefax: 793412

LURRINDEGIA

ERTZ


OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28-B Tfnoa: 79 08 70 ARRASATE

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA
ARETXABALETA (Gipuzkoa)
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99


podiuma

Andoni Villar, mendigoizalea

Andoni Villarri 14 urterekin, Skaut Taldeko partaidea zela, hasi zitzaion mendia gustatzen. Urtebete edo bi urte beranduago joango zen lehenengoz Pirineotara. Bere esanetan, mendi altuegirik egin ez badu ere, Pirineoseko garrantzitsuenetara igo da: Aneto, Vignemalle, Midi, Balaitus...

Zaletasun hau pausoka joan da eratzen. "17 urterekin joan ginen, inolako ekipamendu barik, Pirineosera trabesiak egitera. Ni, halako batean, "nebero" batetik nindoala 100 metrotatik jausi, eta hura ikara! Orduan ikusi nuen pioleta, kranpoiak eta sokak eramateko beharra. Beste behin Vignemallera joan ginen. Bertan Pirineoseko glaziarrik altuena dago, nahiko glaziar berezia eta 30-40°ko erriparekin, gainera. Ba, bertara ailegatu eta mundu guztia sokaz lotuta zihoala konturatu ginen. Guk sokak bageneuzkan, baina erabiltzeko idearik ez. Ba, planta egin, eta zelabait gerri azpitik lotu genuen, segurantz emateko, lotsagatik edo. Orduan konturatu ginen ekipamendua erosteaz gain, erabiltzen ere ikasi egin behar genuela".

Andonik mendiarekin erlazio-naturiko beste aktibitate batzuk ere praktikatu ditu. "Beste esperientzia txar batzuk, jeisterakoan batez ere, eskalada ikastera bultzatu ninduten. Gu beti igotzeko entrenatu gara. Gainera, jeisterakoan beti zaude nekatuagoa. Hasieran rapel sinple bat ere ez genekien egiten, eta haitzetan seguroak egiten ere ikasi beharra ze-



Mendizale batzuen aurrean, "chapeau" esan behar da

goen. Horregatik, eskalada bera ikasteagatik baino, mendian erabiltzeko teknika bezala ikasi nuen". Eta eskiarekin berdin, "asko ez dut eskiatu, baina nere planteamendua ez da pistetan eskiatzea, eski trabesiak egiteko erabiltzea baizik".

Andoni Besaideko batzordekidea ez bada ere, lagundu egiten du talde honetan. Aurten "Negu-teknikak" eman zuenatariko bat izan da. Badauka buruan, bestalde, hainbat proiektu, "bai behin edo beste pasatu zait burutik Andesera joatea, Apamayora edo; baina horra joateko dagoen arazorik handiena diruarena da". Ildo honetatik jarraituz, espedizio handien antolaketa, sponsorizazioaren beharra eta, komentatzen diogu "begira, nik Bilboko mendizale batzuk, goi mailakoak esan nahi dut, ezagutu izan ditut, eta haiek kotxea, pisua eta duten guztia saltzeko kapaz dira espedizio batera joateko. Horren aurrean, chapeau esan behar da, eta jende horri lagundu egin behar zaio. Euskadin egin diren espedizio gehienak, babesle bati esker burutu ahal izan dira".

Atletismo: 4 domina Arrasatera

Joan den astebukaeran Irunen izandako junior mailako Gipuzkoako Txapelketan Arrasate Atletiko Taldeak lau domina eskuratu zituen. José Antonio Gay lehena izan zen 200 (22.5) eta 400 metroko (50.6); José Luis Caballerok ere urrezkoa probetan; lortu zuen 400 m. hezian (1.00.5), eta José Antonio Fuentes, bere aldetik, hirugarren suertatu zen 10 km. ibilketako proban (55.40.6).

Gayk hilaren 23 eta 24ean Salamancan izango diren unibertsitariantzako Espainiako txapelketan 200 eta 400 metrotan hartuko du parte. Zorte on!

KIROLAGENDA

- **futbola: larunbatean:** Setan, Pedrusko-Zaramaga; **igandean:** Setan, Mondragon-Telleri (Oho-rezko liga); Setan, Mutriku-Mondragón.
- **eskubaloia: larunbatean:** 4etan: gazte mailako neskak: Arrasate K.-Leizaran; Setan: Kadeteak: Arrasate K.-Bergara; 6,30etan: 2. Dibisioa (azken partidua): Arrasate K.-Donibane. **igandean:** 12etan: gazte mailako Arrasate K.-Bordatxo Deba.
- **rugbya: larunbatean:** Setan, Durango-Arrasate K. (igoera fasea).
- **ziklismo: larunbatean:** 4etan Oñatin lasterketa.


Denborapasen soluzioak

Aritgrama

Goitik behera eta ezkerretik eskubira: 3, 4, 6, +, —, 5, 4.

Hiztegia lantzen

Lipar: Une oso laburra.



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezkoko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea

Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

Arrasaten graffitti



Arrasaten badaude hainbat mural eta graffitti

Graffittia ez da atzo goizean sortutako fenomeno; aitzitik, gizaldietan galtzen den ohitura dugu. Diotenez, Erromatar Inperioa hobekien ezagutzera eman duen informazioa, Pompeiako hondarretan, idorotako graffittiengandik jasotakoa da. Garai hartan punzoiez egiten ziren garritiok, ormak marratuz.

Egun, bai teknika eta bai funtsa erabat aldatu dira, fenomeno pseudo-artistiko bat izatera igaro delarik. Hala, kartela (beste orma-arte bat)

politikarekiko harremanen adibide garbia badugu, Graffittiei ezin heldu diezaiekegu mutur beretik, guztiz apartekoak bait dira. Horregatik agertzen dira, hain zuzen, gizarte kontrolatu eta zuzendu baten aurkako estrategia bezala; izan ere, graffittiei protesta kutsua darie.


Azter ditzagun orain mundu mailako graffittigunerik garrantzitsuenak: Lehenik eta behin Amerikarra aipatu behar, New-Yorkiarrak bereziki. "Bomp" sonatuez aritu behar hemen: Hizki arraroak, globo puztuen antzekoak, alegereki koloretuak. Berauen egileak oso gazteak izan ohi dira, 17 urtetik beherakoak gehienak, eta harro sentiarazten die euren sinadura ahalik eta toki gehienetan tajututa ikusteak, horren truke boladatxo bat "itzalpean" eman behar badute ere.

Beste graffittigune garrantzitsu bat Parisarra dugu, Amerikarrarekin zerikusi haundirik ez duena. Parisen

serigrafia eta plantilen erabilpena da nagusi. Gaiak, hamaika: Aurpegiak, animali zein giza irudiak, etab. Zentzu artistikoa nabariagoa da hauetan (paristar graffittilarietariko asko arte ederren ikasle dira). Lan handiko gau batetan kale oso bat labezomorro margotuz betetzeko gai dira. Graffittilari hauen nahia edo xedea, hiri bateko ormetan Euren sinadura uztea da, urbearen anonimotasunarengandik nolabait askatzeko.

Euskal kasua ez da berdina. Euskal graffittiak, batetik gizartearen borroka tajutzeko ardura agerian uzten du, eta bestetik, arte alternatiboa izan nahi du, moldeak, spray-ak eta fanzine estetika erabiliz. Hau dela eta, gure hirietako ormak ez daude izen edota sinadura hutsalez blaituta, sozial ardura sakonez baino.

Mikel Arregi
Patxi Montero



AHIZKE-CIM Koop. E.

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

Alemana
Frantsesa
Ingelesa
Italianoa

ITZULPENAK

INTERPRETARIAK

Bisitak
Hitzaldiak
Katalogoak
Foileto teknikoak
Telex-a, eskutitzak
eta txostenak

**FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO
ZENTRUAK**

INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara

Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59

**ARRASATE
PRESS**

Astero zuekin

**KABINETE
MEDIKOA**

**Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analisiak**

**Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08**

Trikitixa berpizten ari



Astekari honek berriki zioen Arrasaten sortzeko den trikitixa-eskolarako eskariak dagoeneko 50 inguru direla. Beste datu batzuen arabera, Gipuzkoan trikitixa ikasten ari direnen kopurua 500etik gorakoa izan daiteke. Euskal Herriko trikitilarien txapelketan ere erruz ari dira jole berriak agertzen. Trikitiaren azken urteotako indarberritzea nabaria da, beraz.

Egia esan, trikiti edo soinu-txikia aspaldidanik dago errotua Euskal Herrian, batez ere baserri-inguruetan. Baina oraingo indarberritze honek, ordea, trikitiaren ohizko moldeen aldaketa dakar. Jole berriak gazteak dira eta beraien arteko asko inguru urbanoetan sortuak. Gaurko musikaren eragina bete-betean jasotzen ari den jendea, beraz, eta normala denez, eragin hori trikitiari txertatzen ari zaiona. Joseba Tapia eta Kepa Junkera lirakeke adibiderik garbienak.

Mundu zabalean, aldi berean, musika erroduna edo "world music" delakoaren fenomenoak suertatzen ari da. Eta musika mota horretan soinu-txikiak presentzia handia du, Afrikako musikan adibidez. Honek tradizio berria dakarkio gure trikitiaren berrikuntzari, bide berriak irekitzen dizkio eboluzio horri. Eta bide horiek urratzen hasiak dira tri-

kitilari gazteak. Tapia eta Leturia, edo Kepa, Zabaleta eta Motrikuren diskoetan nabari da molde berrien bila egindako hausnarketa-lana. Osakorren musikan ere trikitiak pasarte zoragarriak eman ditu, bere ohizko moldeetatik kanpo. Aipagarriak dira, era berean, Joseba Tapiak berak Anje Duhalderen azken diskoan egindako esperimentuak -Paul Simonen "Graceland"ek jorratu zuen bidetik- eta Txomin Artolaren azkenean, Irlandako doinu bat eta trikitia lotuz egindakoa.

Hor dago, beraz, erronka. Euskal musikarentzat iraultzaile izan daitekeena, zenbaiten ustetan. Trikitia oinarritzat lukeen musika bizi eta modernoa amets huts ote, ala gauzatu daitekeen asmoa?

Agian, Arrasaten hasteko diren ikasle horiengandik etorriko da erantzuna.

Mikel Irizar



**Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera**



Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

**MONTE
TABERNA**

**Maalako Errebala, 11
Tfnoa: 79 20 56**

 **Ekaitz**

GOSARIAK
Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera
Otalora, z/g.
Tfnoa: 79 37 76

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekuri aproposena

Uribarri Etorbidea 8

"Etxe-Aundi" jatetxean (II)

ERREZETAK

Duela 15 egun agintzen genizuen bezala, hemen doaz Etxe-Aundi jatetxeko sukaldariak emandako erre-zeta goxo bi: porruak labean gainerreta eta txingerretan erretako galeperrak berakatz erara.

PORRUAK LABEAN GAINERRETA

4 lagunentzako osagaiak
12 porru, 2 koilarakada gurin, koilarakada bat urun, litro erdi esne, birindutako gaztaia.

Ondo garbitu ondoren jarri porruak egosten. Egositakoan ura kendu eta gurin apur batez igurtzitako azpil batean kurioso kurioso jarri.

Gero, eta beste ontzi batetan, koilarakada gurin biak urtu eta bertan irina goxatu; esnea, irakiten dagoenean, gehitu eta gatza eta piper belatza bota. Eragin eta utzi egosten 5 bat minututan.

Saltsa honekin porruak estali eta gainetik gaztai birrindua bota. Sartu labera eta kanela kolorea hartutakoan atera.

TXINGERRETAN ERRETAKO GALEPERRAK BERAKATZ ERARA

4 lagunentzako osagaiak
8 galeper, 6 berakatz atal, 3 koilarakada ardo zuri siku, eskukadaxo bat perejil txikitu, 2 koilarakada "Bovril" (haragi xukua), koilarakada bat ozpin.

Galeperrak garbitu eta erdibitu. Plantxa edo txingar gainean jarri eta 15 minututan erretzen eduki.

Aparte, zartagin batean olio berotan txiki txiki egindako berakatzak bota eta kanela kolorea hartu arte erre.

Honi ozpina, ardo zuria, "Bovril"-a eta perrejila gehitu. Gatza bota eta egosten eduki apur batean. Guzti hau galeperrei gainetik bota.

ZIZKA-MIZKA

Sasoi baten Maiatzeko Sta. Kruzetan hasi eta Iraileko Sta. kruzerarte kanpai jotze berezi bat izaten zen, letxua kanpaia deiketan zitzaiona.

Egunero, Maiatzaren 3tik Irailaren 14erarte jotzen ziren eguerdiko 12etan. Esan behar, sasoi honetan jaten direla urteko letxuarik guri eta ederrenak, eta hortik datorkiola kanpai jotze honi bere izena.

Sasoi honetako letxuak orduko erara jan nahi badituzue, gatza, olio eta ozpina bota beharrean botaiezue ozpina eta azukrea. Ea on egiten dizueten ala ez!

Morokil Taldea

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK **BENGOA**

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

ITSASKI


arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

ARRASATE PRESS

Bidaliezazkiguzu
zure kolaborazioak

Forma fisiko ona



Heziketa Fisiko eta Kiroletako erakundeak emandako definizioa hau dugu: "Forma fisiko ona, eguneroko eginbeharrak eraginkortasunez betetzeko ahalmena da, aisiarako eta hainbat ustegabeko emergentziari aurre egin ahal izateko ere zenbait energia geratzen delarik".

Forma fisiko onean egotea eta osasuna ez dira gauza bera. Atleta Olimpikoak ere batzutan gaixotzen dira, eta osasun oneko edozein pertsonak agian ezingo ditu korrikan

edo igerian metro batzuk egin! Bizikletarien artean, adibidez, katarru-prozesuak nahiko normalak izaten dira, prestaketak eta konpetizioak egiterakoan dauden baldintza meteorologikoen arabera, eta txapel-dunaren osasuna hauskorra izan daiteke bere forma fisikoa ezin hobea bada ere. Beraz, osasuna eta forma fisiko ona gauza bera ez direla argi eta grabi utzi beharra dago, bata bestearen aldamenean askotan badaoz ere.

Forma fisiko ona eraginkortasunarekin loturik dago.

Zure forma fisikoa hobetzen denean, zure gorputzaren lana eraginkorragoa izango da eta hobekuntza hau zure soinean nabaritutako duzu.

Zure forma fisiko onera iristeko garrantzia duten bi aspektu kontutan

hartu behar dira: batetik, zure forma fisiko onaren potentzialtasun hau konstituzio fisiologikoarekin loturik dago, eta era berean, adin, sexu, gorputzaren tipo, osasun eta hereditutako beste faktoreekin. Bestetik, zure forma fisikoaren potentzialtasun hori eguneroko ekintzetan eta daramazun bizimoduari esker gartzuz edo hondatuz lortu duzuna da.

Udaberrian gaude, egunak luzatuz doaz, eta klimatologia ere aldi berean hobetuz; oraintxe duzu forma fisiko onean jartzen hasteko une egokia.

Hemendik aurrera, eta aste batzuetan gai hau ukitzeko asmoa dugu, zeure forma fisikoaren potentzialtasun osoa aurkitu eta errealitate bihur dezazun.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN





- gogorrak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik



LIZARRALDE

KIROLAK

**Deba Garaiko
txirrindularien
denda**

Zure denda

San Lorenzo 1 Tfnoa: 78 29 86 OÑATI

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.

NABE INDUSTRIALEN

SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa
eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

ETXEBIZITZAK

- Garajea salgai Erdialdean. Tfnoa: 79 19 23
- 60m²ko merkataritzarako lokala salgai. Tfnoa: 79 74 80
- Arrasaten Mertzeria bat esku aldatzen da. Prezio interesgarria. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 79 65 78-79 79 16.
- Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.
- Guztiz hornitua dagoen ileapaindegia errentan eman nahi da. Interesatuek dei 79 95 86 telefonora
- Arrasaten pisua errentan hartuko genuke. Interesatuek deitu 79 54 31 telefonora (arratsaldeko 8etati aurrera)
- Aldai-gainen pisua salgai. Sukaldea, egongela, 3 gela, eta garajea. Berokuntza zentrala. Interesatuek dei 79 71 93 telefonora.
- Pisua konpartitzeko neska bat behar dugu. Tfnoa: 79 69 82 (gauetan)
- Pisu txiki bat errentan hartuko nuke. Aurrez lehen hiru hilabeteak ordainduko nituzke. Miguelez galdetu (bazkalorduan). Interesatuek dei 79 97 34 tfnora.
- Torreviejan Bungalows-a salgai dago. Hilabeteak: Ekaina, Uztaila eta Iraila. Gauko 9.30etatik aurrera deitu, 79 15 74 telefonora.
- Laredo: Apartamentua salgai. Interesatuek dei 79 52 80 telefonora
- Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an; Tfnoa: 79 49 36
- Kontsulta medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. Gauetan
- Udarako aproposa, Algortan pisua salgai. Bista onak, Aldapas poligonoa. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna.

Tfnoa: 469 82 69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez.

- Pisua salgai erdialdean. Interesatuek dei 79 29 82 telefonora
- Etxebizitza salgai Bergaran, Zubietakalean. Interesatuek dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- Lehenbaitlehen pisuat errentan hartu nahi dugu Arrasaten. Merkea bada hobe. Tfnoa: 79 09 00. Lorea.
- Bikoteak, lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79.70.29. Iñaki.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Interesatuek dei 79 47 85 telefonora.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzue, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79.52.89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484 90 53 telefonora.

LANA

- Emakumeak haurrak zainduko lituzke. Interesatuek dei 79 63 43 tfnora.
- 23 urteko emakumeak etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. Informeeikin eta esperientziaduna. Interesatuek dei 79 73 88 edo 76 51 32 tfnora.
- Bergarako Udalak igeltzerora kontratatatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.
- Bergarako Udalak Administrari laguntzailea kontratatatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan.

- Bergarako Udalak Deliniantea kontratatatu behar du, urte batez luzagarria. Oinarriak eta informazio gehigarria, Idazkaritzako bulegoetan
- Eraikuntza irakaslea behar dugu. Interesatuek dei 79 79 38 tfnora
- Alecoop-ek Kalitate Zuzendaria eta Merkatal Teknikaria kontratatatu behar ditu. Interesatuek, datu pertsonalak eta curriculum profesionala 20.500 Arrasateko 81 postakutxara, Pertsonaldepartamentuari zuzenduta premia bidez bidaltzea eskatzen dugu.
- Emakumea behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuek dei 79 51 50 tfnora, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara.
- Edozein lan egiteko pres nago. Kontabilitatea eta mekanografia menperatzen ditut. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera, 79 52 96 Tfnoa. Karmen

SALEROSKETAK

- R-5 SS-0066-J berebila salgai. Tfnoa: 79 85 08
- Kanping denda familiarra salgai: (bostekoa). Interesatuek dei 79 09 00 telefonora. Loli.
- Bigarren eskuko hozkailua behar da. Tfnoa: 79.88.23
- Gure galtzak kriston afuinue dauke. Bigarren eskuko labadora bat pozik hartuko geunke merke edo erregalaute. Tfnoa: 79 88 23
- Ia berri dagoen bi ohe tolezgarritzko armairua salgai. Prezioa elkarren artean jartzeko. Interesatuek dei 79 78 91 telefonora (3etatik aurrera)
- Motoreta bat eta karrerasko bizikleta bat salgai. Tfnoa: 79 52 96. Andoni



ARRASATEN HILDAKOAK

- Luisa Sanabria Robles, 87 urte
Apirilaren 29an
- Luis Gandarias Miguel, 43 urte
Apirilaren 29an
- M^a Angeles Alamo Menta
Apirilaren 29an
- Ainhoa eta Luis Angel Gandarias Alamo 12 eta 16 urte
Apirilaren 29an
- M^a Belen Rodero Rodero
Apirilaren 29an
- Juli Etxebeste Gabarein, 80 urte
Apirilaren 30ean



Mari Angeles Alamo Menta eta senideak

Famili eta Gizarte-Heziketarako
Zentruko lagunek ez zaituztegu
ahaztuko

Arrasaten, 1989ko Maiatzaren 5ean

Famauen ahotik

Obduli Ansoategi: "Azkenien oien be banketiek prepartetan eitten naixuan ta itxi ein bier..."



*Erdixen, zutik, zuriz jantzite
Obduli bere ikasliekin*

Bilbon eta Donostien krieria!

Oin fabrikara jueten dan moruen, orduen krieria urteten zuan eta gazteik gañera. 15 urtekin juen nitzuan Bilbora sukaldeko pintxe moruen, gero handik Donostiera. Lau urte ein nittuan konde eta duke artien. Ia sukaldeko martxie hartute naukan eta Altzolako balnearixuen 3. koziñera moruen sartu nitzuan hurrengo.

Altzolako balnearixuen sukaldeko jefa

Bai, sartu eta 2. urterako sukaldeko jefa nitzuan. 12 urte ein nittuan. Gerrie be bertan pasau naixuan.

1.500 pta. kobretan naixuan tenporada akaberan, aurretik bapez. Administradorien hurrengo neuk gehixen. Diru mordue zuan ordureko. Maltzagan lapurrek ibiltten zittuan eta zelan ekarri be ez naixuan jakitten. Oingo moruen sostenik pe etzuan ebaltten eta... Ha izeten zuan biekieue, ha!

Koziñan erakusten eta baserri-xetan

Altzolakuei itxi nutzenien, neskai koziñan erakusten hasi nitzuan. Bi hillebete bier izeten zittuan martxie hartzeko. Akaberie

Gose denporan ezkondu biher izanez gero...

"Gerrie akabau barri ta ezebe etxauan. Eskerrak argi ibilli nitzena eta gizona panaderue hartu nauena..."

Obduli Ansoategi

bankete bateaz emuten gutzan. Aste akaberan baserri-xetan bodak, banketiek eta holakuek gertaketan eitten naixuan, besperan juenda. Azkenengue Maringo baserri baten ein naixuan ta larri allegau nitzuan bertara. Trenbirie aprobetxauaz holako bagoi moruko bat jaukien baserri-tarrak, kargak ero gurezana eruen da ekarri eitteko ta esan juztien: *Hortxe juengo zara ederto*. Billurrez ikera-ka sartu nitzuan. Trena suertau ezkerro pentsaute naukan zelan salto ein. A ze deskantsue hartu nauen allegau nitzenien!

Soziedade askotan ibillitte

Bai, askotan ibilli nok, Udalpen, Kasinuen, Alkartun, Karkabalen... Udalpe inaugurau zanien 47xen neu nitzuan koziñera. Harrezkero makiña bat bankete preparau juat. Bai Kasinuen be, bertako giltzie emun juztien eta etxien letxe ibillitten nitzuan.

Jentiek gogor jaten juan, bañe propiñak pe halaxe emun eh! Azkenengo itxulapikue Perifño Arotzak ein justan ta urtebetien 70.000 pta. atara nittuan propiñetan. Ondo pasau juat koziñan. Bañe azkenien oien be banketiek prepartetan eitten naixuan ta itxi ein bier...

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Eztakigu egixak izango dien plazentziar harek kontatzen zittuanak, baiña Afrikan safarittan ibillitakotzat agertzen eban bere burua.

Iluntze baten hola kontatzen zotsan lagun bati Afrikako historixak?

— ... bai, bai, bazkaltzen gendela uste barik agertu jakuan tigre bat. Igesai emon eta haura zuen perra hotsa. Ahal ebanak ahal eban lekura. Sekula ez-tittuk nere hankak hain li-jerrak izan. Haura zuan aintxixiketia. Basamortuak jota hegatzadan pasatzen najittuan. Ondo probau najuan nere junturak eneuzkala uste bezin sorrak. Aillegau nitzuan mendixa sei metruan ebagitta zeuan leku batera eta salto egiñaz justu justuan obatu najotsan bestealdeko hegala eta pultsuan igo bihar izan najuan.

— Eta tigría?

— Berri be bestaldia hartu nebanian etxando tximistas jarraitu najuan arro batetik bera. Aintxintxika joan eta joan ninddoiala ibai bat azaldu jatan aurrian eta igarixan pasau nintzuan kokodriloik zeuan ala ez begiratzeko asti barik.

— Eta tigría?


Ibaixan mendixan hartu nebanian bizkor altzau najittuan hankok mendixan gora. Egundoko paretia igo behar izan najuan jausiko ez jausiko, eta horraittio osasunakin hartu najuan paretia gaiña.

— Eta tigría?

— Zer dok hori! Beti: "eta tigría, eta tigría, eta tigría!"

Hi noren alde hago, nere alde ala tigrían alde?

Juan Martin Elexpuru



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

lfoa: 791886

ARRASATE

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



Orain dela 53 urteko Maiatzaren 1a

Orain dela 53 urteko Maiatzaren 1a Argazki honetan ikus dezakezuena, 1936ko Maiatzaren 1ean

Arrasaten langileek egindako manifestazioa duzue. Urte eta egun gogoangarriak haiek: Otsailean Frente Popularrak agintea eskuratu zuen eta Uztaietan gobernu horren aurka altxatuko ziren militarrek, gerra zibilariek ekiten ziotelarik; beraz, handik aurrera urte askoan ez zuen Mondragoeko herriak jai

hori askatasunez ospatzerik izango. Gerra aurreko azken ospakizun horretan festa-giroa da nagusi: musika-banda aurretik, manifestariak dotore jantzita, gorbata eta guzti, ondoren; igartzea erraza ez bada ere, banderadunak U.G.T. sindikatuaren ikurra daramala esango genuke. Biteri kaletik Olarte kalerakoan dago aterata fotografia, Portaloien aurrean hain zuzen.

Jerardo Elortza

—Fotozahar sariketa—

Ze izen zeukan Portaloien gasolina banatzen aritzen zen emakume ezagunak?

—Joan den asteko irabazlea—

Fran Fernandez Alonso, arrasatearra ("Biteriren oroitarria 1971. urtean aldatu zuten")

"Goonierrak" euskarazko bideofilmea

-VIGURI Bideo Klubak emana-
irabazi nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:

Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran 14'ko koloretako
markako TELEBISTA BAT
zozkatuko du hileko parte
hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

G E R O A

ANTZERKI EMANALDIA

D U R A N G O,
U N S U E Ñ O.

1 4 3 9

Eguna: Maiatzak 6, larunbata
Tokia: AMAIA ANTZOKIA
Ordua: Gaueko 10,30etan
Sarrera: 300 pta.

Antolatzaile: Arrasateko Udaleko Kultura Batzordea



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora Ilean

Biltegi berria: Meatz Erreka

ARRASATE

OSORIK

pub

Ignazio Zuloaga

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalen gaixotasunak
Azaleko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

**Agirre
Miota
Gestoria**

Zerga deklarazioak

Erdiko kale 28, 2.

Tfnoa: 79 34 33

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ARRASATE
PRESS**

denon artean egiteko
bidali zuen
kolaborazioak

Poteolari bakartiaren gorazarrea

Gero eta gehiago dira;
begira iezaiezu, barraren bazterretik
erdi alderuntz piskanaka hurbiltzen.

Koparen ertzetik zintzilik,
gauaren apaletan lekua irabaziz,
gauaren aurpegia begi lausotuez
esku dardartiez
oin erritmikoez
bete digute.

Edalontzia eta zigarroa
euren euskarri bakarra,
baina nork maite dezake gehiago
kamareroen haserre isila
abesti berriaren freskura
gintonikaren limoi usaia...

Kontu egizu
istorio asmatzaileak direla,
zure imintzioez
jazkeraz
oihuez
elikatzen direla

eta zerori euren istorioetako pertsonaia zaren era berean,
eurak ere —erdi alderuntz hurbilduz, lekua irabaziz—
zure istorioko eserlekuan agertuko zaizkizula
begi lausotuez begira, egunen batean.

Dunper Limard



Fotokoplak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

KLINIKA DENTALA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
(Umeentzat ere bai)

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 73 88

■ **"Kale koño", Benidorm.** Asko dira sasoi honetan Benidorm aldera eguzki eta lasaitasun bila jotzen duten euskal jubilatuak. Haiek ere denboraren joanean egin dituzte beren topaleku eta begiko txokoak. Horieta bat, oraintsu jakin izan dugunez, "calle del coño" edo "kale koño" da. "Koño, heu ere hemen?" edo "Koño, koño, begira nor datorren hor" eta antzerako esaldietatik eman diote izena hotel eta taberna gehienetatik oso gertu omen dagoen kale honi. Guzti honen berri Euskadi Irratiko "Goizean behin" saioko unitate mugikorrari esker izan dugu, hiru egunez Benidormeko "Kale koño"tik egin bait zuten beren ekitaldia. Jubilatutako askoren ahotsak eta kontuak entzun ahal izan genituen, tartean Alejandro Zubia eta Konsuelo Ezkurra mondragoetarrenak. Beste txalo bat Joxe Mari Apaolaza eta bere lankideentzat.

■ **Emisora Parroquial de Mondragón:** Gustora irakurri dut Juanito Leibarrek "Txandaka"n idatzitako artikulua. Hainbat oroimen lainotsuren artean, garbi entzun dezaket oraindik Calleja umearen ahots kraskatua modako edozein abesti urratzen, eta Juanito beraren gomendioa: "Calleja, ahotsa finatzeko, arraultze gorringo asko". Gure artean behintzat, nahiko komentatua izaten zen Eskolako irratia. Hala ere, ez nukeen esango hamar urtez iraun zuenik.

Herri honetan, Parroki Emisora honek erakusten digunez, garai txarretan ere ez da ekimen falta izan. Aintza eta ohore, ezin zenean, ahal zena, ahal izan zenuten modu txukun hartan egin zenuten guztioi.

■ **Tolosa-Galartza:** Aurtengo esku banakako txapelketaren erdifinala zen, Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Lehenengo aldiz euskal pilota profesionalean, pilotariak publizitatea zeramaten soinean, Arrasateko Lan Kide Aurrezkiarena, hain zuzen. Jokalari bakoitzak 175.000 pezeta sakeleratu zuen horregatik. Jendeari, beste kiroletan ohituta, nonbait, ez zaio txarto irudit. Ezker paretan zegoen publizitateak, oster, hautsak harrotu ditu han-hemenka.

Gainontzeko kiroletan normaltzat jotzen ditugun aldaketak poliki-poliki bada ere, badoaz gure herri kiroletan ere sartzen. Ez beti, ordea. Noizko, adibidez, fraka motzak Euskal Herriko pilotalekuan? Imajina ditzakezue Becker, McEnroe edo Lendl galtza luzetan? Ba, tenisaren harriaroan, ehun urte edo direla, horrela hasi ziren. Zein izango litzateke arazoa, tradizioaz apurtzea ala izter eta ipurdi gizenak agerian jartzea?

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Farenheit,** ostiralean, 22,35etan. Aste honetan estudioan Luis Mendizabal, musikari esperimental, eta Iñaki San Martín saxojolea izango dira. Gainera, hiru erreportai ikusgai: Oscar Tusquest, arkitektu katalanari buruzkoa; orain dela gutxi desagertutako Urolako trenari buruzkoa, Josu Morenok egina; eta Bekereke antzerki taldearen gainerakoa.

■ **Sport Auto,** larunbatean, 18,20etan. Alfa Romeo 164 TD autoari buruzko informea izango da; Santanderreko "Peñucas Rallye"ra hurbilduko dira ETBko kamarak; "Tour Corse" eguneko etaparen laburpena eta Herri Torrontegi txapeldunarekin elkarriketa.

■ **Willie ere gogoan hartu** ("Tell them Willie boy is here", 1969). Larunbatean, 22,10etan. Zuzendaria: Abraham Polonsky; Antzezleak: Robert Redford, Katharine Ross, Robert Blake. Willie boy gazte indiarra Californiara itzultzen da bere emaztegaia Lola berreskuratzeko asmoz. Horretarako gizon bat hil eta Lolarekin ihes egitera behartuta dago. Christopher Cooper da bikoteari jarraitu eta harrapatzeaz arduratuko dena.

bideoak



Daniel eta lehoien zuloa: Baltasar errege paganoak hormaganean suz idatzitako mezu misteriotsua jasotzen du. Jakin-gurak jota, Daniel hebreetarren profetari deitzen dio. Honek erresuma Darioren menpe geldituko dela iragartzen dio. Errege bihurtutakoan, Dariok, Danielen ausardia eta fedea neurtuko ditu, azken hau lehoi zulora botatz...

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

	x		:		= 2
+		x		+	
7		3	—	5	= 5
:				—	
	x	4	:		= 5
= 2		= 8		= 7	

Aritgrama

Hiztegia lantzen


Zer da lipar? Aukeratu zerrenda honetan definizio zuzena

- LIPAR = a) BARAZKI BAT
b) UNE OSO LABURRA
d) TRANPA (KARTA JOKOAN)
e) NEGAR MALKOA

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

Horoskopo a



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Pertsona horretaz zenuen eritzia guztiz aldatu da. Ez zaitez horregatik nahigabetu, lehengoa ilusio bat besterik ez zen. Amets gozo batetik esnatzea gogorra da beti.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Bada zure burua zaintzeko ordua, zuri baka-rrik dagokizu eta. Bestalde, kanpotik berri onak ailegatu zaizkizu. Aste honetan, egunez egun, gauzak konpontzen hasiko zaizkizu



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Orain arteko portaera aldatzera bultzaturik sentituko zara. Egiten baduzu, harrokeria alde batera utzi ezazu, inoiz ez dizu emaitza onik eman eta.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Zauden egoeran munduko indar guztiakin sentitzen zara eta ez duzu arrazoi faltarik. Udaberria eztanda zoragarri izan da zuretzat, aprobetxatu txinparta guztiak



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Beldurti hutsa zara, zure hotsasuna defentsa bat besterik ez da. Zergatik ez duzu bizitza hartzen eta zaren bezala agertzen? Egin ezazu proba.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Arrazoi berezirik ez baduzu ere, kezkatu-rik zabilta aspaldi honetan. Lasai zaitez edo zeure buruko mamuek zure bizitza ilunduko dute.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Hanka sartu duzu baina mundua ez da hor amaitzen. Konponbide egokia aurkitzea ez zaizu zailegi gertatuko. Dena den, hurrengoan kontuz.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Zer darabilzun baldin badakizu jarraitu, baina ondo pentsatu hurrengo pausua eman baino lehen. Suarekin jolasten ari zara eta honen arriskua ezagutzen duzu.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Amodioarekin obsesionaturik zabilta as- paldi honetan eta onartu beharko zenuke. Horrela jarraituz gero, zure inguruko guztiak ihes egingo dute.




CANCER
Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra

Agian arrazoa izango duzu, baina hori besteen aurrean frogatu behar da. Ez pentsa edonork uler dezakeenik zuk hitz egiten ez baduzu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Betebehar horri bizkarra emanez ez duzu ezer aurreratuko. Zergatik ez diozu behin betikoz ekiten? Askotan hastera zailena da, bestea berez jarraitzen delarik.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Arazo horri buelta gehiago ematen badiozu burutik jota bukatuko duzu. Ez egin masoka-rena eta lagun bati laguntza eskatu. Badu- zu norengan konfidatu.

👉 **LAGUN-ARO 1988an**

LAGUN-AROKo Bazkideak

Lagun-Aroekin bat eginik dau-
den kooperatiben artean, handienak
hauek dira:

Ulgor 2.230	bazkide
Eroski 1.668	"
Lankide Aurrezkia 1.345	"
Copreci 985	"
Ederlan 671	"
Fagelectro 553	"
Danobat 525	"
Ulma 483	"

LAGUN-AROKo bazkideak guz-
tira: 18.263 (1987an baino 208 ge-
hiago).

13.530 gizonezko; 4.733 emaku-
mezko.

LAGUN-AROKo onuradunak
guztira: 46.484; zifra hau nahiko
finkatua dago, 1982an 48.328 onu-
radun zeukan eta.

Onuradunetatik, 788 pentsiodu-
nak dira (jubilatua, alargunak, el-
barriak).

Osasun-Asistentziako kostuak

Osasun-Asistentzia bazkide ba-
koitzari 2.042 pta. hileko kostatzen
zaio, %31 kliniketan eta %27,34a
mediku espezialistetan gertatzen
delarik.

1988rako 27.613 pta. kalkulatu
zen, urte eta bazkideko; gastu erreala
28.925 pta.koa izan zen.

Zenbait komunitatek bazkide eta
urteko 20.891 pta. kontsumitu duen
bitartean, beste batzuk 40.688 pta.ko
gastua izan dute.

Laneko Ezintasun Iragankorra

LAGUN-AROn derrigorrezko
kuota (Autonomoen kuota sartuta)
bazkideko eta hileko 47.884 pta.koa
da; hau da, hileko kontsumozko
aurrerakin errealararen %29,95a.
Kuota hau 1988koa da. Erreferentzia
gisa, aipatu behar da 1984ean kuota
hori 27.320 pta.koa izan zela.

Laneko huts egiteak eta Istripuak

1988an (eta dagoeneko 3 urte
dira) LAGUN-AROKo onuradunen
arteaz ez da istripu hilgaririk
gertatu.

Laneko huts egitea, lan egindako
orduei buruz kalkulatu, %3,992an
geratu da. Erreferentzia gisa,
1988an indize hau %5,500koa izan
zen.


Karguak

LAGUN-AROKo Errektore-Ba-
tzordeburua: Roman Balanzategi
Jna.

Zuzendari-Gerentea: Eduardo
Arana.

Eta Mila Belategik LAGUN-
AROKo Batzorde Ordezkarian
ESKOLA ordezkatzen du; makina
bat problemarenkin bi hilabeterik
behin biltzen den batzordea.

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ